

## GIL 109 Pico del Fraileren pinakulua



Pico del Fraile edo Fraideburu Urduñatik, mendatea igotzen hasi aurretik.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 58' 25,17 " N

Long.: 3° 2' 34,65" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 496.497,09 m

Y: 4.757.890,62 m



### Nola iritsi

Urduña herritik, hartu A-2625 errepidea Urduñako mendateraino. Mendatera iritsita, utzi automobila eskuinean dagoen aparkalekuan. Handik, jarraitu pistari ipar-mendebalderantz, Gorobel mendilerroaren ertzetik, Pico del Fraile edo Fraideburura iritsi arte 40 bat minutuan.



Pico del Fraile edo Fraideburu, haren altuera berean dagoen begiratokitik.

## GILaren deskribapen laburra

Monolito ikusgarri bat da. Gorobel mendilerroaren fronte osoa eratzen duten Subillako kareharrien diaklasa-sistemaren aldeko higadura diferentzialaz eratu zen.

Gailurra baino 40 metro beherago dagoen lepo txiki batek bereizten du pinakulua horma nagusitik. Hego-ekialderantz, pinakuluak 150 metroko horma bertikal bat du. Gorobel mendilerroari eragiten dioten N110°E, N135°E eta N35°E norabideko zenbait diaklasa-sistemak erabakitzen dute pinakuluaren geometria, bai eta estratifikazio subhorizontalak ere; hark eratu du pinakuluaren goialdeko sabai irten bereizgarria.

Pico del Fraile edo Fraidebururen pinakulua Euskal Autonomia Erkidegoko eskalada-bide klasikoetako bat da. 1955ean eskalatu zuten lehen aldiz.

## Behatzeko punturik onena

Hego-mendebalderantz 100 bat metroko distantziara dagoen begiratokitik.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 57, GIL 69, GIL 114.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 110, GIL 114, GIL 29.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala		●		
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b> EAeko eskalada-bide klasikoetako bat da.					
<b>Oharrak:</b>					